

DIRU-SARRERAK

Ikaslanen bezero nagusiak ikasketak eta lana uztartzen dituzten ikasleak dira, eta gure zerbitzuaren truke ordaintzeko prest daude, bereziki azterketa-garaietan. Zerbitzu hau erabilgarria eta eroso denez, ikasle gehienek hilero ordainketa errepikakorrak egiteko prest daudela aurreikusten dugu, zerbitzua modu jarraian erabili ahal izateko.

Diru-sarrera mota nagusia: Harpidetzagatik ateratako dirua

Gure zerbitzuak hilero ordaintzeko harpidetza-eredua jarraituko du (50€). Honen bidez, ikasleek hilero kuota bat ordainduko dute, eta kuota horrek haien lanpostuan ordeko profesional bat izatea bermatuko die azterketa-garaietan edo lanetik kanpo egon behar duten uneetan. Kuota hori ordaintzeaz minimo urte bat konprometitu behar dira, honela gu zihurtatu egiten gara gure langileei ordaindu ditzekeiogula.

Ikaslanek prezio finkoa ezarriko die hilero ordaindu beharreko kuotei, zerbitzua egonkorra eta aurreikusgarria izan dadin. Eta urte bat baino gutxiago edo zenbat denbora harripidetuta egongo diren ez dakitenek beste prezio bat ordaindu beharko lukete (75€).

Harripidetzen diru-sarreraren gain beste leku batetik lortu ahalko genuke. Ikasleek harripidetza bera eskubidea (lanera ez joatea azterketengatik) gaizki erabiltzen badute isun bat ordaindu beharko dute, isuna laritasunaren arabera izango da.

Dirua ere formakuntzatik lortu genuke. Formakuntza desberdinak eskainiko ditugulako eta prezio desberdinetakoak.

Gure hasierako inbertsioa 20.000€-koa da eta Erantzunkizun Mugatuko Sozietate bat eratuko dugu. Enpresa asko handitzen bada gure forma juridikoa aldatzea planteatuko dugu

Laburbilduz, Ikaslanek hilero ordainketa finko baten truke eskaintzen du ordezkapen zerbitzua. Harpidetza-eredu honek zerbitzua iraunkorra izatea ahalbidetzen du, eta ikasleei lasaitasuna eskaintzen die, jakinda azterketa-garaian lanpostu segurua eta profesionala izango dutela.